


Aberatsak beti aberats



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Florentzia, 1427. XIV. mendeko krisi ekonomiko eta demografikoaren ondoren, hiria berpizten ari zen. Burgesiak gora egitearekin bat eta haien mezenasgoari esker, Florentzia Errenazimentuaren habia izan zen. Eta arteaz gain, ekonomia ere loratu zen, nagusiki artilearen merkataritzari esker. Horretan jarduten zuen une horretan agintean zegoen Albizzi familiak. Baina ordurako Medicitarrek beren garroak zabalduak zituzten, Cosimo Zaharraren eskutik (1389-1464); handik urte gutxira, Medici familiak hiriko agintea lortuko zuen eta ez zuen hiru mende luzez askatuko.

Zehazki urte horretan, 1427an, hirian errolda bat osatu zuten zerga-bilketarako eta bertan xehe jaso zituzten hiritarren ondasun eta diru-sarrerak. Duela urte batzuk, zergadunen datu horiek digitalizatu eta online jarri zituzten. Aukera hori baliatuz, Guglielmo Barone eta Sauro Mocetti italiar ekonomistek XV. mendeko datuok 2011koekin alderatu dituzte.

800 abizenekin lotutako diru-sarrerak aztertu eta egungo Florentzian gehien irabazten duten bost izenen zerrenda osatu zuten, besteak beste. Gero, 1427ko erroldan bost abizen horien sarreari, ondasunei eta lanbideei buruzko informazioa bilatu zuten. Eta emaitza argigarria da: zerrendako bost abizenetatik lau (lehenengo lauak) batez bestekotik gora zeuden 1427an diru-sarre-



FRANCESCO ROSSELLI

FLORENTZIA XV. MENDEAN. HIRIAREN PLANOAK ASKO ALDATU DA 600 URTEGAN; HIRIKO FAMILIA ABERATSANEN ZERRENDA, ALDIZ, EZ

rei dagokienez, eta horietatik hiru %10 aberatsenen artean. Eta zein dira abizen horiek? Ikerlanean A, B, C, D eta E letraz izendatu dituzte, pribatutasuna medio.

Alegia, 600 urtetan, hainbat setio, Napoleonen kanpaina, Mussoliniren diktadura eta bi mundu gerra igarota, ezer gutxi aldatu dela ondasunen banaketan. Baina Barone eta Mocettik diote beren ikerketaren emaitza ezin dela orokortu.

1986an Gary Becker eta Nigel Tomes ekonomistek zera zioten *Human Capital and the Rise and Fall of Families* liburuan: "Arbasoek bildutako ondasun gehienak, onerako eta txarrerako, hiru belaunaldi-

tan deuseztatzen dira". Horren arabera, Florentzian gertatutakoa salbuespena litzateke.

Baina duela urte batzuk Gregory Clark eta Neil Cumminsek antzeko ikerketa egin zuten Ingalaterran (*Surnames and Social Mobility in England, 1170-2012*), eta zortzi mendetan (28 belaunalditan) eliteko familia gehienek beren estatusari eutsi ziotela erakutsi. Clarkek zortzi herrialde erantsiko zituen beste lan batean (*The Son Also Rises*, 2014): Suedia, AEBak, India, Taiwan, Japonia, Korea, Txile eta Txina. Guztietan ondorio bera ateratu zuten: iraganeko aberatsak gaur ere aberats direla. ●



ITALIAKO DEFENTSA MINISTERITZA

Lehertu gabeko munizioa albiste

Duela bizpahiru aste, Erromako Ciampino aireportua hainbat orduz itxi zuten Bigarren Mundu Gerrako lehergaiak topatu zituztelako (argazkian). Handik egun batzuetara, haur batzuek, ibaian imanez arrantzan ari zirela, garai bereko granada bat "harrapatu" zuten Hanburgon, herdoilduta eta segurtasun-krokagailua galduta. Bi kasuetan

ez zen zauriturik izan eta anekdota gisa tratatu zituzten albistegietan.

Aldiz, 2017an pertsonen kontrako minek 2.000 hildako eta 4.000 zauritu inguru eragin zituzten eta lehertu gabeko errazimo-bonbek ia 300 pertsona hil zituzten.. Baina horiek guztiak Erromatik eta Hanburgotik urrun daude eta ez dira albiste. ●